



HONDARRIBIKO UDALA

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIK
2012KO UZTAILAREN 24AN EGINDAKO
EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hamabiko uztailaren hogeita lauan Udaletxe honetako Batzar Aretoa Udaltatza bildu da Aitor Kerejeta Cid Jaun **Alkate-Udalburuaren** Lehendakaritzapean eta ondoren aipatzen diren **Udalkideak** partaide direla:

Alkateordeak:

Juan Maria Altuna Muñoa jna.
Txomin Sagarzazu Ancisar jna.
Lupe Olaskoaga Susperregi and.
Amaya Gezala Ortiz and.
Maite Pelaez Arregi and.

eta Zinegotziak:

Gregorio Berrotaran Etxeberria jna
Katrín Martínez De la Valle and.
Ibai Labaien Zapiñain jna.
Juan Ortiz Armendariz
Catherine J.A. Noblia Richard and.
Marilena Castillo Gil and.
Jesus Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Ramon Laborda Larzabal jna.
Jose Miguel Ochoteco Aguirre jna.
Ion Elizalde Caballero jna.

Ezin etorria azaldu du Jon Mikel Garmendia Múgica jaunak.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa burutu dute 12:30 orduetan ni, Maria Luisa Izquierdo Marculeta Andrea, Udaleko Idazkaria lagun nautelarik.

Bilkura hasirik, ondoko Zerrendan agertzen diren Gaiak aztertu dira:

ALKATETZA

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA
CELEBRADA POR EL EXCMO.
AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE
HONDARRIBIA EL DIA 24 DE JULIO DE 2012**

En la Ciudad de Hondarribia a veinticuatro de julio de dos mil doce se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **Alcalde-Presidente** D. Aitor Kerejeta Cid y con la asistencia de los/as **Tenientes de Alcalde Sres./as.:**

D. Juan María Altuna Muñoa
D. Txomin Sagarzazu Ancisar
D^a Lupe Olaskoaga Susperregi
D^a. Amaya Gezala Ortiz
D^a Maite Pelaez Arregi

y de los Concejales y Las Concejales Sres./as.:

D. Gregorio Berrotaran Etxeberria
D^a Katrín Martínez De la Valle
D. Ibai Labaien Zapiñain
D. Juan Ortiz Armendariz
D^a Catherine J.A. Noblia Richard
D^a Marilena Castillo Gil
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui
D. Ramon Laborda Larzabal
D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre
D. Ion Elizalde Caballero.

Ha justificado su ausencia: D. Jon Mikel Garmendia Múgica

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las 12:30 horas, asistidos/as de mí, la Secretaria, Dña. María Luisa Izquierdo Marculeta.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día.

ALCALDÍA



HONDARRIBIKO UDALA

1-LEHENENGO SEKTOREARI BURUZ OPOSIZIOKO BOZERAMAILEEK AURKEZTURIKO IDATZIAREN INGURUAN

2012ko uztailaren 5eko 4356 SE zkiarekin Bildu, PSE-PSOE, Hamaikabat eta PP udal taldeetako bozeramaileek aurkezturiko idatzia ikusirik, bertan Lehen Sektoreari buruz aritzeko ezohiko Udalbatza bilkura deialdia eskatuz.

Era berean, aipatutako bozeramaileek 2012ko uztailaren 23ko 4738 SE zkiarekin aurkezturiko mozioa ikusirik, Lehen Sektorearen inguruko Mahaia sortzea eskatuz baserritarren azokaz, Jaizkibel mendiaz eta arrantzaz, besteren artean, hitz egiteko; eta Mahaia hilabetean behin gutxienez biltzea proposatuz, baita bertan Gobernu Taldeko kideak, oposiziokoak eta horiekin batera bertan parte hartzeko interesa duten arrantzale, baserritar eta biztanleak ere egotea proposatuz.

Proposamena eztabaidaturik Labaien jaunak hartu du hitza, eta esan du deigarria dela oposizioko talde guztiek mozioa sinatzea; bere ustez horrek pentsarazi beharko lioke gobernu taldeari.

Gogorarazi du legealdiaren hasieratik ez dela lehenbiziko aldia bere taldeak -BILDUK- horixe eskatzen duena, izan ere martxoaren 21ean aurkeztu zuten gai horri buruzko idatzi bat, eta merkatuari buruzko zenbait proposamen egiten ziren; prentsaurreko bat ere egin zen, eta bertan gogorarazi zuten batzordea ez zela egin.

Esan du harrigarria dela haiek, udal taldea izanik, prentsaren bidez jakitea bideetan konponketak egingo zirela edo larunbatetako azoka martxan jarriko zela, eta beste hainbeste beste gauza askorekin ere. Ez dakite nola dabilen azoka, ez dute inoiz jakin izan, eta azokari buruzko araudia irakurri

1-EN RELACIÓN AL ESCRITO PRESENTADO POR LOS PORTAVOCES DE LA OPOSICIÓN SOBRE EL SECTOR PRIMARIO

Visto el escrito presentado por los portavoces de los grupos municipales Bildu, PSE-PSOE, Hamaikabat y PP, RE nº 4356 de 5 de julio de 2012, solicitando la convocatoria de una sesión plenaria extraordinaria para tratar el tema del Sector Primario.

Asimismo, vista la moción presentada por los mismos portavoces, RE nº 4738 de 23 de julio de 2012, solicitando la creación de una Mesa en relación al Sector Primario para tratar temas sobre la Feria de los Baserritarras, el monte Jaizkibel y la pesca, entre otros, y proponiendo que la Mesa se reúna una vez al mes como mínimo, fomentando para ello la participación en la Mesa de los miembros del Equipo de Gobierno, la oposición, y de aquellos pescadores, baserritarras y ciudadanos que tengan interés en formar parte de ella.

Sometida a deliberación la propuesta, toma la palabra el Sr. Labaien que, en primer lugar, llama la atención sobre el hecho de que la moción haya sido suscrita por todos los grupos que conforman la oposición, y cree que eso le tendría que hacer pensar al equipo de gobierno.

Recuerda que, desde el inicio de la legislatura, su grupo – BILDU- no es la primera vez que lo pide, pues ya el 21 de marzo presentaron un escrito en el que se referían a este tema, y se hacían algunas propuestas en cuanto al mercado, incluso se hizo una rueda de prensa en la que se recordó que la comisión no se había constituido.

Añade que lo que les llama la atención es que ellos, el grupo municipal, se enteraba por la prensa de que se iban a hacer arreglos en los caminos o que se iba poner en marcha el mercado los sábados, y así de otras muchas cosas, pero no saben cómo funciona el mercado, ni han podido



HONDARRIBIKO UDALA

dute, baina ez dakite betetzen den.

Esan du zaila dela udal honetako zenbait departamentutan ekarpenak egitea; ez dakite nola hartzen diren erabakiak, ez dakite deus ere; baina berak dioenez, haiek lan egiteko prest daude.

Alkate jaunari gogorarazi dio aurretik berak Alkate jaunari esan ziola interes handia zutela lehenbiziko sektorea lantzeko, eta gainera aurrekontuak eztabaidatu zirenean talde guztiek esan zutela lehenbiziko sektorea Hondarribian garrantzitsua zela, eta informazioa izan nahi zutela.

Esan du azkenik puntu horretara iritsi direla, eta gutxieneko batzuk adostu direla; gutxieneko horiek guztientzat dira onargarriak, baita gobernu talderako ere; eskatu da lehenbiziko sektoreko mahai bat eratzea, hilero bilduko dena; mahai horretan eztabaidatuko da baserritarren azokari buruz, Jaizkibel mendiaren kudeaketari buruz, arrantzari buruz, etab. eta udal taldeek ez ezik baserritarrek eta abarrek ere hartuko dute parte.

Ondoren Elizalde jaunak hartu du hitza, eta Alkate jaunari eta gobernu taldeari esan die hausnartu egin beharko luketela, izan ere oposizioko talde guztiak ados daude gai batzuetan; oposizioak ez du lehenbiziko sektoreari buruz iritzia emateko biderik; ez da horretarako eremu bat sortu, ez dira bilerak egin, eta berari esan diotenez ez da ekarpenak egiteko aukerarik eman.

Esan du ez dakiela nola nahi duten herritarraren parte hartzea bultzatu, kontuan hartzen ez badituzte herriaren ordezkariak eta haien iritzia, aldekoak nahiz aurkakoak; hori baserritarren gaian ikusi da; zenbait bilera egin dira eta zenbait erabaki hartu dira, baina horiei buruz prentsaren bidez jakin dute, eta ezin izan dute parte hartu.

Gogorarazi du aurreko legealdian Agenda 21 ekimenean mahai bat zegoela, eta bertan ordezkakuta

saberlo nunca y han leído la normativa del mercado, pero no saben si se cumple o no.

Añade que es difícil hacer aportaciones en este ayuntamiento en determinados departamentos, no saben cómo se toman las decisiones, no saben nada, pero ellos, dice, están dispuestos a trabajar.

Recuerda al Sr. Alcalde que él personalmente ha recordado al Sr. Alcalde el interés que tienen en que se trabaje sobre el primer sector, e incluso cuando se debatieron los presupuestos todos los grupos manifestaron la importancia del primer sector en Hondarribia y que se quería tener información.

Dice que finalmente se ha llegado a este punto y se han consensuado unos mínimos, que para todos son muy aceptables, incluso para el grupo de gobierno, solicitando la creación de una mesa del primer sector, cuyas reuniones tengan una frecuencia mensual, como una mesa en la que debata sobre el mercado de los caseros, la gestión del monte Jaizkibel, la pesca etc, y en la que participen además de los grupos municipales, los caseros, etc, en los temas que sean de su interés.

A continuación interviene el Sr. Elizalde quien dice al Sr. Alcalde y al equipo de gobierno que debieran reflexionar sobre el hecho de que todos los grupos de la oposición se pongan de acuerdo en algunos temas, pues verán que la oposición no tiene ninguna vía para poder dar su parecer, en relación con el primer sector: no se ha creado un ámbito en el que poder hacerlo, ni se han hecho reuniones, y según le han dicho a él, ni se ha dado la oportunidad para poder hacer aportaciones.

Añade que no sabe cómo se quiere impulsar la participación del ciudadano si no se tiene en cuenta a los que representan al pueblo, ni sus opiniones a favor o en contra, entonces, y se ha visto en el tema del mercado de los caseros, que se han hecho algunas reuniones y se han tomado algunas decisiones de las que se han enterado por la prensa, sin haber podido participar.

Recuerda que en la legislatura anterior, dentro de la Agenda 21 había una mesa en la que estaba



HONDARRIBIKO UDALA

zeudela gobernu taldea, oposizioa, baserriarrak, eta herritar interesatuak. Esan du orain horixe eskatzen dutela. Gobernuak nahiz oposizioa partaide diren mahai bat; baserriarrak eta gaietan interesa dutenak ere izango dira bertan. Esan du aurreko legealdian araudia prestatu zela, baina ez zela osoko bilkuran onartu.

Adierazi du nahiko lukeela azokaren araudia mahai horretan berriz lantzea, eta gero osoko bilkurara eramatea onartzeko; gogorarazi du aurreko legealdian, gainera, Hondarribia markari buruzko azterketa interesgarria egin zela, eta esan du ona litzatekeela eztabaidetzea ea zer egin daitekeen Hondarribiko baratzeko produktuekin.

Era berean, esan du ideia ona litzatekeela (gai zerrendan egon ez arren), mugikortasunari buruzko mahaia, eta etxebizitzaren politikari buruzko mahaia sortzea, Agenda 21en barrenean.

Kontua zera da, oposizioari informatzea, prentsaren bidez enteratu gabe, eta oposizioa kontuan hartzea erabakitzerakoan.

Eskatzen dutena, azken batean, gauza logikoa da, Elizalde jaunaren hitzetan: lehenbiziko sektoreko mahaia abian jartzea, eta bertan parte har dezatela bai gobernu taldeak, bai oposizioak, eta bai herritarrek. Hondarribiko baserriaren jardura oso garrantzitsua da, ez bakarrik alderdi ekonomikoari begira: bestelako konnotazioak ditu, euskaldun eta hondarribiarrei lotuak.

Eskatu du mahai hori eratzea Agenda 21en barrenean, eta garrantzitsuak diren bestelako gaietarako ere beste mahai batzuk eratu daitezela.

Ondoren Alvarez jaunak hartu du hitza, eta esan du ados dagoela Labaien eta Elizalde jaunekin, mahaia eratu beharra dagoela, izan ere bere ustez azken boladan batzuetan ez dute informazio aski eta parte hartzeko bide aski.

representado el equipo de gobierno y, la oposición y los caseros, así como ciudadanos interesados. Añade que lo que piden ahora es lo mismo: crear una mesa en la que tomen parte tanto el gobierno como la oposición, así como los caseros y quien esté interesado en dar su parecer en los temas que trabaje. Añade que en la anterior legislatura se preparó la normativa, si bien no se aprobó en sesión plenaria.

Anima a que se trabaje nuevamente la normativa sobre el mercado en esa mesa y a que se lleve al pleno para su aprobación; recuerda también que en la anterior legislatura se hizo un estudio muy interesante sobre la marca Hondarribia, y anima a debatir sobre lo que se puede hacer en relación con los productos de la huerta de Hondarribia.

Anima también, aún reconociendo que no está en el orden del día, a que igualmente se cree la mesa de la movilidad, una mesa sobre política de vivienda dentro de la Agenda 21.

De lo que se trata es de que se informe a la oposición, sin que tenga que enterarse por la prensa, y de que se cuente con la oposición para tomar decisiones.

Lo que piden en definitiva es algo lógico, según el Sr. Elizalde, poner en marcha la mesa del primer sector, en la que participen tanto los representantes del grupo del gobierno como de los grupos de la oposición, así como los ciudadanos. La actividad del caserío en Hondarribia es muy importante no sólo porque sea motor económico sino también por otras connotaciones, muy ligadas a los euskaldunes y los hondarribiaras.

Pide que esa mesa se cree dentro de Agenda 21, así como que se creen las otras mesas también para los temas que se consideren importantes.

A continuación interviene el Sr. Alvarez, que se muestra de acuerdo tanto con el Sr. Labaien como con el Sr. Elizalde en la necesidad de la creación de la mesa, pues cree que en los últimos tiempos a veces no tienen la suficiente información ni los



HONDARRIBIKO UDALA

Kasu honetan kontua lehenbiziko sektoreko mahai bat da, eta landuko diren gaiak baserria, arrantza, Jaizkibel, bideak, etab. dira, baina berez gai nagusia lotuta dago udal talde sozialistak enpleguaren aldeko mahaiarekin proposatu zuenarekin.

Eskatu du gobernu taldeak bideratu dezala zinegotzi eta herritarren parte hartzea.

Bere hizketaldia bukatzeko esan du une zail hauetan politika aldarrikatzen duela, politika hizki handiekin idatzia; politika zera dela, lan egitea eta herritarrei parte harraraztea; politika zenbait gai kopondu edo errazteko tresna dela, adibidez, Udaletxe honetan: etxebizitza, garraioa, edo enplegua lantzeko baliabidea. Berak nahiko luke mahaiak eratzeko aukerak ikusi eta bideratzea.

Ondoren Ochoteco jaunak hartu du hitza. Esan du bere alderdiaren ustez lehenbiziko sektorea oso garrantzitsua dela. Gogorarazi du lehenbiziko sektore osoak krisi orokor bat jasan ondoren, une hauetan sektorea berritzen ari dela, baina indartzeko eta balioa berreskuratzeko plataforma bat egin eta ekimen bat sustatu behar dela.

Gogorarazi du bere taldeak bere programan adierazi zuela sektorea indartu behar zela. Era berean, gogorarazi du 2012ko aurrekontuak direla-eta Jaizkibeli buruzko emendakin bat egin zela, eta azokari buruz ere interesa azaldu zuela, eta esan zitzaioela bazeudela azoka hori garatzeko moduari buruzko azterketak. Berarentzat aurrekontuak onartzeko garrantzitsua izan zen, eta ordutik azoka sustatzeko konpromisoa hartu zen. Esan du horregatik onartzen duela mahai bat sortzeko mozioa: plataforma bat egon behar du, ez du zergatik batzorde bat izan behar, baina dauden asmoak ekimen bihurtzeko gune bat egon behar du.

Jakin du Agenda 21ean zentzu horretan lan egiten zuen plataforma bat zegoela, eta Elizalde jaunaren

suficientes canales de participación.

En esta ocasión se trata de una mesa del primer sector, donde tratar sobre el caserío, la pesca, el Jaizkibel, los caminos, la pesca, pero el tema de fondo está ligado también a lo que por parte del grupo municipal socialista se planteó con la mesa por el empleo.

Pide que por parte del equipo de gobierno se canalice la participación tanto de los concejales como de los ciudadanos.

Termina su intervención diciendo que en estos momentos difíciles reivindica la política con mayúsculas, que la política es trabajar y hacer de alguna manera partícipes a los ciudadanos, es instrumento para resolver o facilitar ciertas cuestiones, y así en este Ayuntamiento: en materia de vivienda, transporte, empleo le gustaría que se canalizaran y se vieran las posibilidades de crear mesas.

A continuación interviene el Sr. Ochoteco. Dice que para su partido es el primer sector es un sector muy importante. Recuerda que tras haber sufrido una crisis general todo el sector, en estos momentos el sector se está renovando, pero para su impulso y revalorización hace falta una plataforma e impulsar una iniciativa.

Recuerda que su partido en su programa llevaban la necesidad de impulsar este sector. Recuerda también que con motivo de los presupuestos del ejercicio 2012 acordó una enmienda sobre Jaizkibel, y que también se interesó en “la azoka” y se le explicó que ya había estudios sobre cómo desarrollar el citado mercado: para él fue una cuestión importante para poder aprobar los presupuestos, y se tomó el compromiso de impulsar a partir de ese estudio “la azoka”. Añade que por eso también apoya la moción para la creación de una mesa; tiene que haber una plataforma, que no tiene porqué ser una comisión, tiene que haber algo a partir del cual se estudien y se desarrollen iniciativas que están en el tintero y que no acaban de arrancar.

Ha sabido que en Agenda 21 había una plataforma en este sentido que estaba funcionando y, según el



HONDARRIBIKO UDALA

iritziz esperientzia hura ona zen. Bere ustez beharrezkoa da plataforma hori berreskuratzea ekimen xumeei ekiteko.

Hori dela-eta, Ochoteco jaunak esan du mozioa ondo iruditu zitzaiola, alde batera utzita bakoitzak izan dezakeen ikuspegia kritikoa izan daitekeela: bere ustez asmo konstruktiboa duen mozioa da.

Ondoren Alkate jaunak hartu du hitza, eta esan du ados dagoela mozioa onartzearekin, besteak beste oposizioak eman duen mezua argia delako, eta Gobernu Taldeak aitortzen duelako gai honetan, eta agian beste batzuetan ere bai, ez dela beharrezko informazioa eta bide egokietatik eman, eta arazo honi konponbide bat eman behar zaiolako. Esan du batzordea, mahaia, lan taldea edo delakoa abian jartzeko konpromisoa hartzen duela, eta bertan egogo direla Amaya Gezala eta Txomin Sagarzazu, izan ere landuko den gaiak eragingo die Departamentuei; teknikari gisa Naroa / Ainara... egongo da. Aitortzen du ekimenak burutu diren arren agian ez dela informazioa beharrezko bideetatik eman: Erabakiak gobernu taldeak hartu ditu azokan parte hartzen dutenekin izandako elkarrizketetan, eta bilera horiei publizitatea eman behar bazaie hala egingo da, eta denen artean aurkituko dute bidea bilera horietan.

Labaien jaunak esan du arazo beraren aurrean egon gaitezkeela Hondarribia Lantzenen, Arma Plaza Fundazioan eta Agenda 21ean.

Elizalde jaunak hartu du hitza, eta esan du poztu egiten dela mozioa onartu egingo delako; baina ez daki ondo ulertu zaion; esan du kontua ez dela udalkideei prentsari baino lehenago jakinaraztea, baizik eta erabakiak hartzerakoan haiek ere parte hartzea; eta Agenda 21i dagokionez, hori da Udalak duen tresnarik garrantzitsuen; bere ustez asko dago

Sr. Elizalde, la experiencia era positiva. Cree necesario retomar la citada plataforma para que se puedan desarrollar iniciativas sencillas.

Por todo ello, dice el Sr. Ochoteco que le pareció bien la moción, independientemente de la visión de cada uno que puede ser más o menos crítica; considera que se trata de una moción con espíritu constructivo.

A continuación interviene el Sr. Alcalde, quien se muestra de acuerdo en aprobar la moción, entre otras cosas, porque el mensaje que se ha dado desde la oposición es claro, y porque el equipo de gobierno se responsabiliza de que en este tema, y quizás en otros también, no se haya dado toda la información necesaria por los canales debidos y hay que dar una solución a ese problema. Se compromete a poner en marcha la comisión, mesa o grupo de trabajo, da igual el nombre, en la que estarán Amaya Gezala y Txomin Sagarzazu porque lo que se trate en ella afectará a distintos departamentos, y Naroa / Ainara... como técnico. Reconoce que aunque se han llevado a cabo iniciativas, quizás no se ha acertado en los canales de información: las decisiones se han tomado por el equipo de gobierno, tras las reuniones mantenidas con los que participan en la “azoka”, y si a esas reuniones hay que darles una publicidad, se les dará y entre todos encontrarán el camino en esas reuniones.

El Sr. Labaien dice que podemos estar ante el mismo problema tanto en Hondarribia Lantzen, como en la Fundación Arma Plaza o en Agenda 21.

Toma la palabra el Sr. Elizalde, quien se alegra de que la moción vaya a ser aprobada; pero no sabe si se le ha entendido bien; dice que no se trata de que antes de informar a la prensa se les informe a los corporativos, lo que se pretende es participar en la toma de las decisiones, y en cuanto a Agenda 21, para él es el instrumento más importante que tiene



HONDARRIBIKO UDALA

egiteko, hura da baliabiderik indartsuena, eta nahi bada, eraginkorrena.

Azken batean, Elizalde jaunak esan du kontua erabakietan parte hartzea dela, ez bakarrik informatua egotea; eta berak dioenez, Gobernu Taldekoa izango balitz, berekoa izanda, pentsatuko luke erabakiak aberatsagoak eta hobeak izango liritekeela, eta gero ez luketela arazorik sortuko. Hori dela-eta, aurrera parte hartzea, eta poztu egiten da aho batez onartzen delako.

Ochoteco jauna ere pozik dago aho batez onartu delako.

Proposamena bozkatu eta onartu da aldeko hamasei botorekin eta aurkakorik gabe.

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, aho batez, hauxe **ERABAKI DU**:

LEHENENGO.-Hondarribiko Lehen Sektoreari buruzko gaiak lantzeko helburuarekin Mahaia eratzea.

BIGARREN.- Mahaia hilabetean behin bilduko da gutxienez, baita bertan Gobernu Taldeko kideak, oposiziokoak eta horiekin batera bertan parte hartzeko interesa duten arrantzale, baserritar eta biztanleak ere egotea sustatuz.

OGASUN, ONDARE ETA KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA.

2.-2011KO KONTU OROKORRA ONARTZEKO PROPOSAMENA

2011ko Aurrekontuko Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa aztertu da, eta honela osatuta dago:

a) Egoeraren balantzea

el Ayuntamiento, cree que tiene mucho que hacer, cree que es el instrumento más potente, y si se quiere el más efectivo.

En definitiva, dice el Sr. Elizalde, es participación en las decisiones y no sólo información lo que se pide, y, según él, si fuera del Equipo de Gobierno, siendo egoísta, consideraría que las decisiones serían más ricas y mejores, y después no traerían problemas. Por tanto, adelante la participación y se alegran de que se apruebe por unanimidad.

El Sr. Ochoteco también muestra su alegría por la unanimidad mostrada

Sometida a votación la propuesta, es aprobada por dieciséis votos a favor y ninguno en contra.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad, **ACUERDA**:

PRIMERO.-Constituir una Mesa con el objetivo de tratar temas relacionados con el Sector Primario Hondarribia

SEGUNDO.- La Mesa se reunirá una vez al mes como mínimo, fomentando para ello la participación en la Mesa de los miembros del Equipo de Gobierno, la oposición, y de aquellos pescadores, baserritarras y ciudadanos que tengan interés en formar parte de ella.

COMISION DE HACIENDA, PATRIMONIO Y ESPECIAL DE CUENTAS

2.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL 2011

Examinada la documentación de la Cuenta General del Presupuesto 2011, integrada por los siguientes documentos:

a) Balance de Situación



HONDARRIBIKO UDALA

b) Galdu- Irabazien Kontua

c) Txostena, Finantzaketa- Taula, Aurrekontu Likidazioaren datuen eta Kontabilitate orokorrean adierazitakoen arteko erlazioaren Informazio-Eranskina, eta Zorren Egoera-Orria barne hartuko dituelarik

d) Aurrekontuaren Likidazioa.

Udal Kontu-hartzaileak 2012ko ekainaren 18an egindako txostena ikusirik.

Aipatutako Kontu Orokorra ontzat emanez eta berori jendaurrean erakutsi eta Udalbatzak ontzat eman dezan proposatuz Ogasun, Kontu eta Ondare Batzordeak 2012ko ekainaren 27an emandako diktamena ikusirik.

Kontu Orokorraren espedientea 2012ko ekainaren 29ko 124. zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Oholean, 2012ko ekainaren 28tik uztailearen 17a bitarte, jendaurrean erakutsia izan ondoren inolako erreklamaziorik jaso ez dela ikusita.

Proposamena eztabaidatzerakoan Alkateak azaldu du kontuak azkeneko Ogasun, Ondare eta Kontuetarako Batzordearen bileran azaldu zirela; jendaurrean jarri zirelarik ez dela alegaziorik aurkeztu, eta bilkurara ekartzen direla onartzeko, hilabete honetan onartu behar baitira.

Alvarez jaunak hartu du hitza eta protesta egin du puntu hori bilkurako gai zerrendan sartu delako. Uste du errespetatu egin behar zela oposizioaren eskaera, hau da, ezohiko bilkura egitea lehenbiziko sektorerako mahai bat sortzeari buruzko gaia lantzeko.

Dena den esan du ez duela oztoporik jarriko.

Gai zerrendako puntuari dagokionez, hau da, 2011ri dagozkion kontuak onartzeari dagokionez, esan du

b) Cuenta de Pérdidas y Ganancias

c) Memoria que incluye el Cuadro de Financiación, anexo informativo de la relación entre los datos de la liquidación presupuestaria y los reflejados en la Contabilidad General y Estado de la Deuda.

d) Liquidación del Presupuesto

Visto el informe emitido por la Interventora Municipal con fecha 18 de junio de 2012.

Visto, asimismo, el dictamen emitido por la Comisión de Hacienda, Cuentas y Patrimonio el día 27 de junio de 2012, informando favorablemente la referida Cuenta General y proponiendo su Exposición al Público y elevar al Pleno para su aprobación.

Resultando que expuesto al público el expediente de la Cuenta General mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa número 124 de 29 junio de 2012 y en Tablón de Anuncios Municipales, desde el día 28 de junio de 2012 hasta el día 17 de julio de 2012, no se han presentado reclamaciones.

Sometida a deliberación la propuesta, y antes de pasar a la deliberación sobre la propuesta propiamente dicha, el Sr. Alcalde explica que las cuentas se explicaron en la última reunión de la Comisión de Hacienda y Cuentas, y habiendo sido sometidas a información pública, no se ha presentado alegación y que se traen a la sesión para su aprobación pues han de ser aprobadas en este mes.

Interviene el Sr. Alvarez, que protesta por la inclusión de este punto en el orden del día de la sesión. Cree que se tenía que haber respetado el que la oposición había pedido celebrar un pleno extraordinario para tratar la moción relativa a la creación de una mesa del sector primario.

No obstante dice que no va a poner ninguna pega.

Ya en relación con el punto del orden del día, es decir la aprobación de las cuentas correspondientes a



HONDARRIBIKO UDALA

abstenitu egingo direla bozketan.

Alkate jaunak erantzun dio hasiera batean uztailean ohiko osoko bilkura bat egitekoa zela, eta gai zerrenda prestatzerakoan zenbait puntu agertu zirela, eta ezohiko bilkura egiteko aukera ere hortxe zegoela; hasieran pentsatu zuten lehenbiziko sektoreari buruzko gaia ohiko osoko bilkuran lantzea, baina oposizioak behin eta berriz eskatu zuenez ezohikoa izatea, ezohikoan sartu dela, izan ere, ohiko bilkurarako aurreikusitako gaien garrantzia ikusita, besteak hurrengo bilkurarako utzi zirela. Arazo bakarra puntu honetan zegoen - ..kontuen onarpena -, izan ere kontuak uztaila bukatu baino lehen onartu behar dira.

Ondoren Labaien jaunak hartu du hitza, eta esan du ez dagoela hainbesterako eragozpenik bi osoko bilkura egiteko; bere ustez ezohiko bilkura egitea ez da eragozpena ohiko beste osoko bilkura bat egiteko. Uste du ohiko bilkura egin behar dela.

Kontuei dagokienez, bere ustez 2011ri dagozkio, eta berez Batzordeko bileran azaldu ziren. Esan du bozketan abstenitzeko asmoa duela, hain zuzen ere bere taldea osatzen duten zinegotziek kargua 2011ko ekainean hartu zutelako, eta haiek onartua ez den aurrekontu bati buruzko kontuak direlako.

2011ko Aurrekontuko Kontu Orokorra onartzeko proposamena bozkatu eta onartu da, aldeko hamar boto, aurkakorik gabe eta sei abstentziorekin.

Aldeko botoa eman dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Gregorio Berrotaran Etxeberria, Katrin Martínez De la Valle, Ion Elizalde Caballero eta Jose Miguel Ochoteco Aguirre jaun-andreek.

Abstenitu egin dira: Ibai Labaien Zapirain, Juan Ortiz Armendariz, Catherine J.A. Noblia Richard,

2011, manifiesta que se van a abstener en la votación.

A esta intervención contesta el Sr. Alcalde que en un principio en el mes de julio correspondía hacer un pleno ordinario, y al preparar el orden del día aparecieron una serie de puntos, y luego estaba la posibilidad del extraordinario; en un principio se planteó incorporar la moción sobre el sector primario al orden del día del pleno ordinario, pero ante la insistencia por parte de la oposición en que tenía que ser extraordinario, se ha metido en el extraordinario, porque, valorada la importancia de los asuntos previstos para el pleno ordinario, se dejaron para el siguiente pleno que se fuera a celebrar. El único problema estaba en este punto, - aprobación de las cuentas ..- que tienen que ser aprobadas antes de fin de este mes de julio.

A continuación interviene el Sr. Labaien, para quien no hay tanto problema en que se celebren dos plenos; cree que el hecho de que se celebre un pleno extraordinario no es razón para que no se haga uno ordinario. Cree que la sesión ordinaria se tiene que celebrar.

En cuanto a las cuentas, dice que corresponden a 2011, y que efectivamente se explicaron en la reunión de la Comisión. Manifiesta la intención de abstenerse en la votación, y que la razón de la misma es que los concejales que integran su grupo tomaron posesión del cargo en junio de 2011, y que corresponden a un presupuesto que no aprobaron ellos.

Sometida a votación la propuesta de aprobación de la Cuenta General del Presupuesto 2011, es aprobada con diez votos a favor, ninguno en contra y seis abstenciones

Votan a favor: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D^a Lupe Olaskoaga Susperregi, D. Amaya Gezala Ortiz, D^a Maite Pelaez Arregi, D. Gregorio Berrotaran Etxeberria, D^a Katrin Martínez De la Valle, D. Ion Elizalde Caballero y D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre.

Se abstienen: D. Ibai Labaien Zapirain, D. Juan Ortiz Armendariz, D^a Catherine J.A. Noblia



HONDARRIBIKO UDALA

Marilena Castillo Gil, Jesus Ignacio Alvarez Yeregui eta Ramon Laborda Larzabal jaun-andreak

Horren ondorioz, **Udalbatzak**, gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU**: 2011ko Aurrekontuari dagokion Kontu Orokorra onartzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du hamahiru ordu eta hamabost minutuan, neuk ziurtatzen dudan akta hau eginez.

OE/ Vº Bº
ALKATEA/El Alcalde

Aitor Kerejeta Cid

Richard, D^a Marilena Castillo Gil, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D. Ramon Laborda Larzabal.

En consecuencia, **el Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA** aprobar la Cuenta General correspondiente al ejercicio 2011

Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las trece horas y quince minutos, extendiéndose esta acta que certifico.